

Aiherra

Heriotze: Martta Etchart Bastidarra

Martta Etchart Bastidarra zendu zen joan den astean, 93 urte egin beharrak zituen aurten. Anitzek ezagutzen zuten Clement Etchart Bastidako ahotez zenaren emaztea zen. Biak sortez aihertarrak izanki, bikote hau biziki atxikia zen Aiherrari. Funtsean Clement Aiherrara heldu zen lehen pilotan eta musean artzera. Martta berrikitan lzturitzeko xahar-etxera erretiratu zen.

Hunen ehorzketak joan den asteartean Bastidako elizan iragan dira, ondotik gorputza familiak Aiherrako hilerrietan duen hilibira ereman dute. Gure doluminak Jean-Laurent, Bernadette eta Angèle seme-alaberi, arrahurreri eta familia guziari.

Sortze

Antxartean bizi den Jessica Dufour eta Thomas Hemery bikoteak ongietorria egin dio Julen semeari. Urtarrilaren 3an sortua da. Goresmenak aitama gazteeri eta agiantza zoriontsuenak sortu berriari.

Xalbat Duhalde eta Allande Martinon txapelkun!

Ez dira guti kontent Abarratia pilota batasuneko pilotari eta trebatzaileak. Artekoetan, Xalbat Duhalde eta Allande Martinon gazteek Frantziako txapelketaren finala joan den igande goizean ereman zuten, Arrangoitzeko trinketean, Denek Bateko Raphael Lagourgue eta Patxi Lelandais 40/25 garaiturik. Euskal Herriko pilota txapelketa joan den abenduan, hauen beren kontra, 40/34 Irisarriko trinketean galdu ondoan, aldi huntan errebantxa manera ederrean hartu dute. Biba Xalbat eta Allande eta biba Abarratia pilota batasuna!

Berri onekin segitzeko, Theo Etcheverry eta Imanol Goyenetchek kimuen sailean, Euskal Herriko txapelketaren kondu finalerdietan Goizeko Izarrako



(Abarratia): Patxi Lelandais –
Raphael Lagourgue
Xalbat Duhalde eta Allande Martinon

pilotariak garaitu zituzten, Lekorkeko trinketean, joan den ibiakoitz arratsaldean. Orain finalean dira. Goresmenak!